

## zakilixut

© Olariagak



Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

## ATZEKOZ AURRERA

# Errekaleorretik Kubara, esprai baten eskutik

Habanan lanean ariko den autobusa apaindu dute grafitigileek Gasteizen

**G**asteizko margolariei buruzkoa kantatzen zuten erromeriatan gerra ondoko gazte arabarrek; 2002. urte atarian, ordea, pinto-reek zein gazteek rap-a abesten dute ozenki. Grafitigileak dira, eta aurki Kubara bidaliko duten autobusa ederki asko apaindu zuten atzo Gasteizen. «Oso litekeena da gaur hemen margotzen ikusten ari den batek autobusa bera ikustea Habana zaharrean lanean dagoela», azaldu du ekimenaren bultzatzaile Ricardo San Segundok. Arabako hiriburuko Errekaleor auzorako zerbitzua egiten zuen autoa da. Gaurgero guztiz modernoa luzituko du lekutan, Karibe aldean.

Grafitigileak koordinatu dituen David Gotxikoak bikain iritzi dio proposamenari: «Erro-mantiko samarra iruditzen zait: Kuban gau eta egun ikusiko den grafitia, Gasteizen egindakoa... Ideia bapoa, bai horixe!».

Baina, margolariak al dira?



Autobusa espraiez betetzen ari zirela bildutako askok ez zuten akaso horrenbeste esango. Ezta Aitor Eizagirrek berak ere, nahiz eta grafitigile bilbotarrak beste arrazoinamendu bat zerbilen: «Guk ez diogu margolariak garenik. Guk diogu idazleak garela, finean, grafitiak hitzak baitira».

Eizagirre, egin beharrekoaren

zirriborroa eskutan hartuta eta makina bat kazetarik inguraturik, nola demontre koloreztatu erabaki ezinik dabil. «Ezarian egiteko esan digute, publikoak ondo ikus dezan zer-nolako lana egiten dugun, baina hau metroan harrapatuko bagenu, minutu apur batzuetan burutuko genuke».

Koloreak aukeratu bitartean,




MIREN SAEZ  
Aurki Kubara bidaliko duten autobus bat grafitiz margotzeari ekin diote Gasteizko gazte batzuek.

Euskal Herriko egoeraren diagnosia egiteko galdegin diogu Eizagirrerri: «Bilbon grafiti ximple samarrak egitea nahiago dugu, baina Gasteizen, kasu, hormak hobesten dituzte. Iruñeak badu maila nahikoa, eta Donostian, berriz, grafitigilea pixkat jazarrita dagoela esango nuke, eman beharreko ditzosozko irudi eder horren eraginez agian, ez dakit...». Iparraldean ere idazle askotxo daudela dio, Angelun eta Miarritzen batez ere. Eta, agurtu aurretik, eguberrietan Euskal Herri osoko grafitigileak biltzekotan direla jakinarazi digu es-

klusibaz. «Tokian tokiko artea tokian tokiko udalak baldintzatuta» dagoela badaramagu ondorio gisa. Politikagintza edo nora heltzen da hemen, antza.

Bitxia zen idazle gazte horiek grafitiaren ekintza ezinurbano-agoa Gasteizko Foru Plazako probalekuaren gainean ipinitako auto batean garatzen ikustea. «Kontraste polita da, bai», dio Gotxikoak. Salto egin zuen Gasteizek atzo New York sinbolikoraino; Errekaleor auzo ñimiñotik abiatu eta Habanatik igarota. Mundu berdinean, esprai baten eskutik.

RAIN DENAK INTERNETEN... WWW.MEGADENDA.COM



IRUÑA  
Balona etorb., 52 Golem  
948 17 55 38



DONOSTIA  
Bergara, 6  
943 42 63 50



BILBO  
Licenciado Poza, 11  
944 43 47 08

LIBRERIA  
HERRIAK  
LIBURUDENDA



IRUN  
Colon pasealekua  
943 63 17 26

